

4. OHIKO GALDERAK

1. Aurreko urteetako laguntza-programetan aitortzaileen datu guztiak edukiz gero, berriro sartu behar dira?

EZ. “Tresnak” menu hedagarria zabaldu eta “Aurreko ekitaldietako programetako datuak berreskuratu” erabil daiteke.

BILAn instalatutako ereduetan, ordenagailuan aurreko ekitaldiko laguntza-programa edukiz gero, aitortzaile guztien datuak berreskuratu daitezke (bai eta aitorpenetakoak edo aurkezleenak ere, ereduak aukera ematen badu).

Aitortzaile bakoitzaren datuei laguntza-programa bakoitzetik hartzen direnak gehituko zaizkie. Hau da, lehenbizi 190 ereduko datuak (eredu informatiboa) berreskuratu nahi badira eta gero 110/111 eredukoak (eredu ordainketaduna), hauxe egin behar da:

- Lehenik, 190 ereduko datuak berreskuratu. Horrela 190 ereduko aitortzaile guztiak grabatuko dira BILAn, bakoitzak bere harremanetarako pertsonak dauzkala.
- Gero, 110/111 ereduko datuak berreskuratu. Horrela BILAn grabatutako aitortzaileei aurreko ekitaldiko 110/111 ereduko kontu korronteak gehituko zaizkie.

Datu horiek guztiak berreskuratu ondoren honako hauek agertuko dira aitortzailearen fitxan: aitortzailearen IFZ eta izen-abizenak, harremanetarako pertsona (190 eredutik berreskuratuta) eta kontu korrontearen zenbakia (110/111 eredutik berreskuratuta).

Gomendatzen da BILA plataforman instalatutako eredu guztietako aurreko ekitaldietako datuak berreskuratzea, programa horietako datu berak erabiltzeko.

2. Eredu batzuk betetzeko ez dut erabiltzen laguntza-programarik: software enpresa batek sortzen dit fitxategia inprimaketa-moduluaren bidez. Horrela jarraitu ahal izango dut?

BAI. Software enpresarekin hitz egin beharko duzu eta galdetu ea dakien BILA abiaraziko dela eta horretarako prestatu den.

3. 2016ko abenduko edo azken hiruhilekoko ereduak, 2017ko urtarrilean aurkeztu beharrekoak, BILaren bidez aurkeztu beharko dira?

EZ. 2016ko laguntza-programa erabili behar da. Esaterako, 303 eredua, 2016ko abendukoa, 2016ko laguntza-programaz baliatuz aurkeztu behar da.